

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLA ETA OSASUN SAILA

Kontsumoko Arbitraje Batzordea

Kontsumoko Arbitraje Batzordeko idazkaria izendatzeko dekretua

Kontsumoko Institutu Nazionalaren, Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren eta Gasteizko Udalaren ordezkariak 1994ko ekainaren 16an sinatutako hitzarmenaren bitartez eratu zen hiriko Kontsumoko Arbitraje Batzordea.

Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen 231/2008 Errege Dekretuaren 7. artikuluan dago finkatua Kontsumoko Arbitraje Batzordeen osaera, honela:

“Kontsumoko Arbitraje Batzordeak honako hauek osatuko dituzte: presidentea eta idazkaria (Herri Administrazioen zerbitzuetako langileak izan beharko dira), eta organo horri atxikitako laguntzaileak.

Arbitraje Batzordeko presidentea eta idazkaria Batzordea eraginpean hartzen duen Administrazioak izendatuko ditu, eta izendapenak Kontsumoko Arbitraje Batzordeari dagokion lurralde-eremuari dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira”.

Unai López de Briñas izan da Kontsumoko Arbitraje Batzordeko idazkaria, baina berriki lanpostuz aldatu da, beste udal zerbitzu batera. Hori dela eta, beste idazkari bat izendatu beharra dago Arbitraje Batzorderako, eta Piedad Parra hautatu da.

Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen 231/2008 Errege Dekretua betetze aldera, gaur eta honen bitartez, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua aitortzen dizkidan eskumenak baliatuz, hauxe Alkate lehendakaria,

EBATZI DUT

Lehena. Piedad Parra Kontsumoko Arbitraje Batzordeko idazkari izendatzea.

Bigarrena. Ebazpena ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 4an

Alkate-lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE